

BOB / EGOITZA ETA WEBGUNE ELEKTRONIKOA

Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluaren ebazpena, zeinaren bitartez Lehendakariari eskuordetu zaion Bilboko Portuan eta Itsasadarrean portuko bi gidari izendatzea.

Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak 2018ko apirilaren 19an egindako bileran, besteak beste, aho batez hartu zen honako erabaki hau:

- Bilboko Portuko Agintaritzako lehendakariari Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onetsi duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 126.4 b) artikuluko 4. apartatuan xedatutako eskumena eskuordetzea, 2018ko otsailaren 12ko ebazpenaren bidez Merkataritzako Nabigazioko Zuzendaritza Nagusiak Bilboko portuan eta itsasadarrean portuko bi gidari izendatzeko onartutako deialdiari dagokionez, Zuzendaritza Nagusiak Bilboko portuan eta itsasadarrean portuko gidari izateko zerbitzuetarako behin betiko gaitzeko ebazpenak jakinarazi eta gero.

Jakinarazten da dagozkion ondorioak izan ditzan eta argitara dadin, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9.3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Santurtzi, 2018ko apirilaren 19a. Lehendakaria, Asier Atutxa Zalduegi. Idazkaria, Juan Carlos Verdeal Pinto.

Lehendakaria
Asier Atutxa Zalduegi

Idazkaria
Juan Carlos Verdeal Pinto